

Irakurri, gozatu eta oparitzeko

Liburuaren Nazioarteko Eguna izan zen atzo, eta Goierriko hainbat herritan ekitaldi bereziak egin zituzten literaturaren harira.

A. APALATEGI -- L. AGIRRE -- M. LUKI

Liburuaren Nazioarteko Eguna modu ezberdinetan ospatu dute Goierriin. Ekitaldiak hezkuntzatik eta kulturgintzatik prestatu dituzte batik bat. Lazkaon Irakurri, gozatu eta oparitu kanpaina aurkeztu dute Topagunearekin bat eginda. Urretxun eta Zumarragan udalek antolatuta liburu azoka herrikoia egin dute, eta Beasaineko Andramendi ikastolan idazketaren eta irakurketaren inguruko errezitaldia egin dute.

Euskara elkarteek Topaguneak laugarren urtez antolatu du Irakurri, gozatu eta oparitu kanpaina. Euskal Herriko 16 herritan egingo dute hiru hilabetez. Goierri dagokionez Lazkaok egin du bat ekimenarekin. Hiru hilabetez liburu bat irakurri eta haren inguruko fitxa betetzen duenari %25eko deskontu txartela emango diote.

Goierriko Euskal Eskolak, Lazkaoko Udalaren liburutegiak eta Gerriko liburudendak hartu dute ekimena Lazkaon bultzatzeko ardura. Joxepa Madariagak azaldu duenez irakurtzeko zaletasuna bultzatzea da ekimenaren helburua. "Izan ere gutxi irakurtzen da, eta euskaraz gutxiago. Garai hau, ordea, aproposa izan daiteke irakurzaletasuna bultzatzeko. Uda berehala dator, eta oporretan gehiago irakurtzen da. Baina udan irakurtzeko liburuak aurrez erosi behar dira, eta hau garai aproposa izan daiteke.

Lazkaoko udal liburutegiak ere bat egin du ekimenarekin. Patxi Albisu alkatearen hitzetan herritarren artean irakurzaletasuna bultzatu nahian sartu dira elkarlan horretan. "Jendeak liburu bat irakurri eta liburutegian banatuko dituzten fitxetako bat bete behar du, liburutik gehien zer gustatu zaion edota nori gomendatuko liokeen azalduz. Fitxa betetzen dutenek deskontu txartela jasoko dute, Gerriko liburudendan beste libururen bat erosteko.

Lazkaon iaz egin zuten aurreneko aldiz ekimen hori bera, eta Gerriko liburudendako Goreti Larrañagaren arabera "oso harrera ona izan zuen. 155 lagunek bete zuten fitxa. Ohiko deskontuaz gain, Goierriko Euskal Eskolako bazkide direnek erdi prezioan erosi ahal izango dituzte liburuak.

Beasaingo Andramendi ikastolan gurasoak gonbidatu zituzten herenegun ipuinak entzutera. Idazketa prozesuaren erakusketa bat ere antolatu zuten, liburu sorkuntza nolakoa den azaltzeko. Ikasle nagusiek ipuin berbera kontatu zuten gelaz gela, eta haurrek marrazkiak margotzearekin batera bakoitzak bere mailan idatzi egin zuen ipuineko animalia izena eta ipuinean egiten duena.

Adinez adin hitzak nola idazten hasten diren eta idazketa ikasteko prozesua aditzera eman zuten. Haurrek aurrena marrazkiak eta hizkiak bereizten ikasten dute, gero silabaka nola idatzi nahi duten, gero hizki larria erabiliz, eta azkenik hizki xehez.

Urretxun eta Zumarragan liburu azoka egin zuten atzo Liburuaren Nazioarteko Egunaren bueltan. Bi liburudendak parte hartu zuten, Arestik eta Paideiak. Herritarrek haien liburuak saldu edo trukatzeko aukera izan zuten, udalek jarritako mahaietan. Azoka Liburuak plazara egitasmoaren barruko ekimena izan zen.